# txostenamemoria2006

elkar-lan
S.COOP.

KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

# txostenamemoria
# 2006

elkar-lan
S.COOP.

KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

HERRI ONURAKO izaera emandakoa
Declarada de UTILIDAD PÚBLICA

# AURKIBIDEA

ORRIALDEA


I. ORGANO SOZIALAK ..................................5

II. PRESIDENTEAREN AGURRA ....................9

III. INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA ......13

IV. PRESTAKUNTZA.......................................23

V. KOOPERATIBA-AHOLKULARITZA ETA ERAKETA .................................................25

VI. TUTORETZA / JARRAIPENA ..................27

VII. 2006AN, ELKAR-LAN S. COOP.EKIN LOTURA IZAN DUTEN KOOPERATIBA BERRIEN ZERRENDA ..............................29

VIII. ELKAR-LAN, S. COOP. DIRUZ LAGUNDU DUTEN KOOPERATIBEN ZERRENDA ..............................................53


# *ÍNDICE*

PÁGINA


I. *ÓRGANOS SOCIALES ..............................5*

II. *SALUDO DEL PRESIDENTE ......................9*

III. *INFORMACIÓN Y DIFUSIÓN ..................13*

IV. *FORMACIÓN...........................................23*

V. *ASESORAMIENTO Y CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS ................................25*

VI. *TUTORIZACIÓN / SEGUIMIENTO ..........27*

VII. *RELACIÓN DE NUEVAS COOPERATIVAS VINCULADAS A ELKAR-LAN, S. COOP., EN 2006...................................................29*

VIII. *RELACIÓN DE COOPERATIVAS QUE HAN COLABORADO ECONÓMICAMENTE CON ELKAR-LAN, S.COOP. ....................53*

I.

# ORGANO SOZIALAK

## *ÓRGANOS SOCIALES*

# ORGANO SOZIALAK 06/XII/31n
## *ÓRGANOS SOCIALES AL 31/XII/06*

## BATZAR NAGUSIA *ASAMBLEA GENERAL*

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA (EKGK-CSCE)
*CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS DE EUSKADI (CSCE)*

EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA (EKK-CCE)
*CONFEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE EUSKADI (CCE)*

EUSKADIKO LAN ELKARTUKO, IRAKASKUNTZAKO ETA KREDITUKO KOOPERATIBEN FEDERAZIOA
*FEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE TRABAJO ASOCIADO, ENSEÑANZA Y CRÉDITO DE EUSKADI*

## KONTSEILU ERREKTOREA *CONSEJO RECTOR*

| | | | |
|---|---|---|---|
| PRESIDENTEA | *PRESIDENTE* | Agustín Mendiola Gorospe | ERKIDE |
| PRESIDENTE ORDEA | *VICEPRESIDENTA* | Marta Aréizaga Ezkurdia | EKK-CCE |
| IDAZKARIA | *SECRETARIO* | Juan Luis Arrieta Pagaldai | EKGK-CSCE |
| KIDEAK | *VOCALES* | Javier Gantxegi Alday | ERKIDE |
| | | Natividad Puertas Alonso | ERKIDE |
| | | José Antonio Ugarte Elorza | ERKIDE |
| | | Alfredo Montoya Estíbalez | EKGK-CSCE |
| | | Imanol Igeregi Bilbao | EKK-CCE |
| ZUZENDARIA | *DIRECTOR* | Fco. Javier Sanz Santaolalla | |



# II.

## PRESIDENTEAREN AGURRA

## *SALUDO DEL PRESIDENTE*

ELKAR-LAN, S. COOP. Kooperatibak Sustatzeko Elkartearen 2006ko ekitaldia jardueraz betea egon da kooperatiba-enpresen sustapen eta zabalkundearen arloan.

Egin duen lanaren emaitzaren ondorioz, 35 Kooperatiba berri jarri dira abian oso arlo desberdinetan: industrian, irakaskuntzan, zerbitzuetan, nekazaritzan, etxebizitza edo garraioaren arloan besteak beste, eta hori euskal kooperatibismoaren aberastasun eta heterogeneotasunaren erakusgarri garbia da.

Osatu diren Kooperatiba horiei guztiei ELKAR-LAN, S. COOP.ek laguntza garrantzitsua eskaini die aholkularitza juridiko eta ekonomikoa emanez, finantzaketa eta bitarteko fisikoak bilatuz eta abar, sustatzaile berriek oso ongi balioetsi eta estimatu duten laguntza.

Sustaturiko enpresen artean, ehunekoetara jota, hirugarren sektorekoak dira nagusi (pertsonen arreta, arte eta kultura-zerbitzuak, informatika, ingurumena…), eta hori ez da aurtengo bereizgarria, baizik eta azken urteotan errepikatzen den zerbait; horregatik pentsatzen dugu sektore honen ahalmenak handiak direla, baldin eta neurri egokiak hartzen badira, bai Euskal Kooperatiba Mugimenduaren aldetik eta bai Herri Administrazioaren aldetik.

Ildo horretatik, Kooperatiba sortzeko gutxieneko bazkide-kopurua bira murriztea komeniko litzateke, sortzen diren enpresa-proiektu berri ia guzti-guztiak, batez ere zerbitzuen sektorean, oso lagun gutxirekin sortzen baitira; enpresa abian jartzeko unean zaila da lehen egunetik behar beste jarduera izatea jende gehiago hartzeko eta, hala ere, urte batzuk geroago, enpresa horietako askok hazkunde-prozesu nabarmenak izaten dituzte. Baina forma juridikoa eraketaren unean erabakitzen da, oraindik merkatuak hitz egin ez duenean, eta beraz sustatzaileak ahalik eta gutxien izaten dira, proiektuaren izaeraren arabera. Horregatik da beharrezkoa Kooperatiba sortzeko eskatzen den gutxieneko bazkide-kopurua murriztea, baita beste neurri batzuk hartzea ere, guztiekin araudi espezifikoa osatuz sortzen diren Kooperatiba txikientzat.

ELKAR-LAN, S. COOP.ek, bere jardueraren lehen 4 urteotan, 150 Kooperatiba-enpresa baino gehiago sustatu ditu. Eta kopuru hori harro

*El ejercicio 2006 que ha desarrollado la "Sociedad para la Promoción de Cooperativas ELKAR-LAN, S. COOP." ha estado plagado de actividad en materia de promoción y difusión de la empresa cooperativa.*

*Como resultado del trabajo que ha llevado a cabo se han puesto en marcha 35 nuevas Cooperativas en ámbitos de actividad muy dispares, tales como la industria, la enseñanza, los servicios, el sector agrario, la vivienda o el transporte, entre otros, lo que es una clara muestra de riqueza y heterogeneidad del cooperativismo vasco.*

*A todas estas Cooperativas que se han constituido, ELKAR-LAN, S. COOP. les ha ofrecido una ayuda y apoyo importantes en el asesoramiento jurídico y económico, la búsqueda de financiación y medios físicos, etc… que han sido valoradas y apreciadas de forma muy positiva por los nuevos promotores.*

*Entre las empresas promovidas destacan porcentualmente las que llevan a cabo su actividad en el sector terciario (atención a las personas, servicios artísticos y culturales, informática, medio-ambiente, …) y ello no es algo especialmente propio de este año, sino que viene repitiéndose en los últimos años, lo que nos lleva a considerar que las potencialidades de este sector son grandes si se adoptan las medidas adecuadas tanto desde el Movimiento Cooperativo Vasco como desde la Administración Pública.*

*En este sentido, convendría reducir el número mínimo de socios para constituir una Cooperativa reduciéndolo a dos, ya que la casi totalidad de los nuevos proyectos empresariales que se crean, y especialmente en el sector servicios, lo hacen con un número muy reducido de personas debido a que en el momento de poner en marcha la empresa es difícil que desde el primer día generen una actividad suficiente capaz de acoger a más personas y, sin embargo, muchas de estas empresas, pasados un años tienen notables procesos de crecimiento. Pero la forma jurídica se decide en el momento de la constitución, cuando aún el mercado no ha hablado y, por lo tanto, los promotores son los mínimos de acuerdo con la naturaleza del proyecto en cuestión. Es por ello necesaria la reducción citada en el número mínimo de socios para constituir una Cooperativa así como otras medidas que compongan todas ellas una regulación específica de las pequeñas Cooperativas de nueva creación.*

*En los primeros cuatro años de actividad, ELKAR-LAN ha promovido la creación de más de 150 empresas Cooperativas. Y si la cifra es lo*

egoteko modukoa da orain arte egindakoaz; gainera, bereziki gogobetegarria da proiektu horien hilkortasun-tasa, %2koa besterik ez baita, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Estatuan enpresa-proiektu orokor berrietan batez beste dauden tasak baino askoz txikiagoa.

Nabarmentzekoa iruditzen zait ere beste gai hau ere: enpresa-jarduera hori ia enplegu beteko testuinguru sozio-ekonomiko orokorrean ari da gertatzen, gaur egun langabezia-tasa Euskadin %6koa baino handixeagoa baita, eta beraz ELKAR-LANek bultzaturiko Kooperatiben sustatzaile tipoa ez da lan-merkatuan lanik aurkitu ezin eta horren ordez Kooperatiba sortzen duen talde bat izaten. Aitzitik, ezaugarri hau dute: 35-45 urte artekoak, prestakuntza eta eskarmentu handikoak jarduera jakin batean, eta beren gaitasun eta ahalmenetan fidatuz enpresa-abentura kooperatiboa hasi nahi izaten dutenak, horrek gogobetetzen dituelako. Eta agian horregatik ulertzen da hilkortasun-tasa ere hain murritza izatea Kooperatiba berri horietan.

ELKAR-LANek egindako sustatze-jarduera bere langile guzti-guztiek, salbuespenik gabe, izan duten entrega eta dedikazioari zor zaio batez ere, eta eskertzen diet proiektuarekiko ardura.

Esker ona azaldu nahi diet laguntza eman diguten erakunde guztiei, publiko eta pribatuei: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu eta Prestakuntza Departamentuari.

Eta, noski, ELKAR-LANeko bazkide diren hiru erakundeetako arduradunei (Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioari eta Euskadiko Lan Elkartuko, Irakaskuntzako eta Kredituko Kooperatiben Federazioari), baita lagundu diguten Kooperatibei ere, horien zerrenda 2006ko Oroitidazki honen barruan agertzen delarik.

Agustin Mendiola Gorospe
Presidentea

*suficientemente alta para estar satisfechos de lo realizado hasta el presente, resulta especialmente satisfactoria la tasa de mortalidad de dichos proyectos, que es escasamente del 2%, muy inferior a las tasas medias de la Comunidad Autónoma Vasca y del Estado en cuanto a nuevos proyectos empresariales en general.*

*Otro aspecto que considero que merece resaltarse es que la actividad emprendedora se está impulsando dentro de un contexto socio-económico general de pleno empleo, ya que actualmente la tasa de desempleo en Euskadi supera muy ligeramente el 6%, lo que hace que el promotor tipo de las Cooperativas promovidas por ELKAR-LAN no sea la del colectivo que monta una Cooperativa para dotarse de un trabajo que no encuentra en el mercado de trabajo. Al contrario, el perfil caracterizador es el de personas de entre 35 a 45 años, con una gran formación y experiencia en una determinada actividad y que confiando en sus capacidades y potencialidades deciden iniciar una aventura empresarial cooperativa que les ofrece una satisfacción personal. Y quizá en ello esté también una gran parte de la explicación a la tan reducida tasa de mortalidad que están presentando las nuevas Cooperativas.*

*La actividad promotora desarrollada por ELKAR-LAN ha sido posible, sobre todo, gracias a la entrega y dedicación del conjunto de los trabajadores sin excepción, a los cuales agradezco su entrega al proyecto.*

*Agradecimiento que deseo extender a todas las instituciones, públicas y privadas, que nos han ofrecido su colaboración tales como el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco y el Departamento de Empleo y Formación de la Diputación Foral de Bizkaia.*

*Y por supuesto a los responsables de las tres entidades socias de ELKAR-LAN (Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, Confederación de Cooperativas de Euskadi y Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado, Enseñanza y Crédito de Euskadi), así como a las Cooperativas que nos han apoyado y cuya relación se recoge en el interior de esta Memoria 2006.*

*Agustín Mendiola Gorospe*
*Presidente*

# III.

## INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA

## *INFORMACIÓN Y DIFUSIÓN*

Kooperatiben sorrera bultzatzeko, gure bezero izan daitezkeenen artean Kooperatiba bat zer den azaldu dugu, bere berezitasunak, abantailak edo desberdintasunak beste sozietate-egitura batzuen aldean, berariazko laguntzak, zerga eta kontabilitate arloan duten araudia, etab. Halaber, gure berri bazuten erakundeekin harremanak hobetu ditugu, eta beste erakunde batzuekin beharrezko harremanak izan ditugu ELKAR-LAN, S. COOP.en errealitatea jakinarazteko.

Helburu hori betetzeko, ondorengoak egin ditugu:

1.- ELKAR-LAN, S. COOP. ETA BERE JARDUERAK ETA HARREMANAK AURKEZTEKO BANAN-BANAKO BILERAK DAGOENEKO EZAGUTZEN GAITUZTEN ERAKUNDEEKIN.

Ondorengo erakunde hauekin egin ditugu bilerak:

- ENPRESA- ETA BERRIKUNTZA-ZENTROAK ETA ENPRESA SUSTAPENERAKO ZENTROAK.

  Harremanak izan ditugu Zentro horiekin, bai beraiek eskatuta eta bai geure ekimenez.

- TOKI GARAPENEKO AGENTZIAK ETA BEHARGINTZAK.

  Guztiak bisitatu ditugu, eta, beraz, harreman erraz eta zuzenak ditugu beraien teknikariekin zuzenean horrela eskatzen digutenean edota, ELKAR-LAN, S. COOP.etik antolatzen diren ekitaldietan: adibidez, Kooperatiba Prestakuntzako Jardunaldia, Garapen-ek antolatua eta gure teknikariek Eibarren Debegesa-ren lokaletan emana.

  Halaber, kooperatiba-eredua ezagutzeko interesa duten sustatzaileekin beraien lokaletan izan ditugun bilerak azpimarratu behar ditugu, beraien teknikariek eskatuta; proiektu horietako batzuk beren enpresa-bidea Kooperatiba gisa hastea espero dugu.

- LANBIDE

  Bilera bana egin da Basaurin, Irunen eta Agurainen dauden hiru bulegoetako zuzendari eta teknikariekin.

- GIZARTE SEGURANTZAKO DIRUZAINTZA OROKORRA

  Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako bakoitzean Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren bulegoetako teknikariekin hainbat zuzemen edo gestio egin dugu ekitaldian eraturiko Kooperatiben premien arabera.

*Para promocionar la creación de Cooperativas hemos dado a conocer, entre nuestros potenciales clientes, lo que es una Cooperativa, sus peculiaridades, ventajas o diferencias sobre otras configuraciones societarias, las ayudas específicas, su regulación fiscal, contable, etc. Así mismo, hemos mejorado y atendido las relaciones con las entidades que ya tenían conocimiento de nuestra existencia, además de haber gestionado con otras entidades los correspondientes contactos para darles a conocer la realidad de ELKAR-LAN, S. COOP.*

*Para abordar dicho objetivo se han realizado las siguientes actuaciones:*

*1.- REUNIONES INDIVIDUALES DE PRESENTACIÓN DE ELKAR-LAN, S.COOP., ASÍ COMO DE SUS ACTIVIDADES Y RELACIONES CON ENTIDADES QUE YA NOS CONOCEN.*

*Estas reuniones, las hemos celebrado con las entidades siguientes:*

- *CENTROS DE EMPRESAS E INNOVACIÓN Y CENTROS DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL.*

  *Hemos mantenido contactos con dichos Centros, tanto a instancia de ellos como por nuestra propia iniciativa.*

- *AGENCIAS DE DESARROLLO LOCAL Y BEHARGINTZAK.*

  *Habiendo sido todas ellas visitadas, mantenemos contactos fluidos y directos con sus técnicos cuando éstos así nos lo requieren directamente o, en los eventos que se organizan desde ELKAR-LAN, S. COOP., tales como la impartición de una Jornada de Formación Cooperativa que se organizó por Garapen y se impartió por nuestros técnicos en Eibar, en los locales de Debegesa.*

  *Así mismo, debemos resaltar las reuniones que hemos mantenido en sus locales, a instancia de sus técnicos, con promotores interesados en conocer el modelo cooperativo y esperamos que alguno de dichos proyectos pueda iniciar su andadura empresarial como Cooperativa.*

- *LANBIDE*

  *Se han mantenido contactos con los Directores y técnicos de las tres oficinas sitas en Basauri, Irún y Salvatierra.*

- *TESORERÍA GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL.*

  *Hemos realizado diferentes gestiones con técnicos de las oficinas de la Tesorería General de la Seguridad Social de cada uno de los Territorios Históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa en función de las necesidades de las Cooperativas que hemos constituido a lo largo del ejercicio.*

- INEM

  Ondorengo bulegoetako arduradun eta teknikariekin izan ditugu bilerak: Bilbo (Mazarredo zumardia eta Gran Vía), Barakaldo, Basauri, Burtzeña, Donostia (Okendo kalea), Getxo, Ondarroa eta Gasteiz.

- MERKATARITZA GANBERAK

  Aurreko ekitaldietan hasitako harremanen ondorioz, Araba eta Bilboko Merkataritza Ganbe-retatik, Enpresak Sortu eta Finkatzeko Laguntza Zerbitzuek bidalitako sustatzaileekin aritu gara.

- AHOLKULARITZA-ENPRESAK

  Arreta pertsonalizatu berezia eman zaie hauei, 2006ko Oroitidazki honen 10. atalean ikus daitekeen bezala.

- FUNDAZIOAK ETA ELKARTEAK

  Bilerak eta harremanak izan dira honako hauekin:

  - ARABAKO EMAKUME PROFESIONAL ETA ENPRESABURUEN ELKARTEA (AMPEA).
  - AZARO FUNDAZIOA.
  - MUGARIK GABEKO EKONOMISTEN FUNDAZIOA.
  - GAZTENPRESA FUNDAZIOA.
  - SARTU FUNDAZIOA.
  - WORK-LAN ELKARTEA
  - EUSKADIN ERREFUXIATUARI LAGUNTZEKO BATZORDEA (CEAR)

- FORU ALDUNDIAK

  Bilerak egin ditugu gure Autonomia Erkidegoan hiru Lurralde Historikoetan enpresa-sustapenaren arloan eskumenak eta erantzukizunak dituzten foru-diputatu, zuzendari, zerbitzu-buru eta teknikariekin.

- UNIBERTSITATEAK

  Bilerak izan ditugu UPV/EHU-ko eta Deustuko Unibertsitateko Kooperatiba eta Gizarte Ekonomiako Institutuekin.

  LANKI-Mondragón Unibertsitateko Kooperatiba Institutuarekin eta Mundukide-rekin ere egin dugu lan, Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimenduko talde baten inguruan; gure erakundea aurkeztu zitzaien Mondragón Unibertsitateak Eskoriatzan duen Humanitateen Fakultatean azaroaren 16an.

- BESTE ERAKUNDE BATZUK

  Ondorengo erakunde eta instituzioek egin dizkiguten kontsulta eta bisitetan parte hartu eta lagundu dugu:

- Costa Rica, Mexiko, Kolonbia eta Gizarte Ekonomiako Espainiako Enpresaburuen Konfe-derazioaren (CEPES-ESPAINIA) ordezkaritzak.

- *INEM*

  *Hemos celebrado reuniones con responsables y técnicos de las oficinas de Bilbao (Alda. Mazarredo y Gran Vía); Baracaldo; Basauri; Burceña; Donostia-San Sebastián (C/Oquendo); Getxo; Ondarroa y Vitoria-Gasteiz.*

- *CÁMARAS DE COMERCIO*

  *Fruto de nuestras relaciones, iniciadas en ejercicios anteriores, hemos atendido a promotores que nos han remitido desde el Servicio de Apoyo a la Creación y Consolidación de Empresas, de las Cámaras de Comercio de Álava y de Bilbao.*

- *CONSULTORIAS Y ASESORIAS*

  *Siguen siendo objeto de una especial atención personalizada, tal y como se refleja en el apartado 10 de este capítulo de la Memoria 2006.*

- *FUNDACIONES Y ASOCIACIONES.*

  *Se han mantenido reuniones y relaciones con:*

  - *ASOCIACIÓN DE MUJERES PROFESIONALES Y EMPRESARIAS DE ÁLAVA (AMPEA).*
  - *AZARO FUNDAZIOA.*
  - *FUNDACIÓN DE ECONOMISTAS SIN FRONTERAS.*
  - *FUNDACIÓN GAZTEMPRESA.*
  - *FUNDACIÓN SARTU.*
  - *ASOCIACION WORK-LAN*
  - *COMISIÓN DE AYUDA AL REFUGIADO EN EUSKADI (CEAR).*

- *DIPUTACIONES FORALES*

  *Se han mantenido relaciones y reuniones con Diputados Forales, Directores, Jefes de Servicios y Técnicos, con competencias y responsabilidades en el área de promoción empresarial, de los tres Territorios Históricos de nuestra Comunidad Autónoma.*

- *UNIVERSIDADES*

  *Se han mantenido reuniones con los Institutos Cooperativos y de Economía Social de la UPV y de la Universidad de Deusto.*

  *Tambien hemos colaborado con Lanki (Instituto Cooperativo de Mondragón Unibersitatea) y Mundukide, al respecto de un grupo de brasileños del Movimiento sin Tierras de dicho país, en una jornada de presentación de nuestra entidad, que tuvo lugar en la Facultad de Humanidades de Mondragón Uniberstitatea, en Eskoriaza, el 16 de noviembre.*

- *OTRAS ENTIDADES E INSTITUCIONES*

  *Elkar-Lan ha participado y colaborado en las consultas y visitas que nos han efectuado las entidades e instituciones siguientes:*

- *Delegaciones de Costa Rica, Méjico, Colombia y de la Confederación Empresarial Española de la Economía Social (CEPES-ESPAÑA).*

- Nazio Batuen proiektu bat abian jartzeko ardura duten irakasleen ordezkaritza, garapen bidean dauden herrialdeetan IKTak erabiliz Kooperatibak sortu eta haztea bultzatzeko.
- Bilbon SABINO ARANA FUNDAZIOAK antolaturiko jardunaldi batean parte hartu genuen: "Elkarrizketa eta Gizartea: Etorkizuneko Joerak Europar Batasunean".
- ARACOOPek antolaturiko Jardunaldietan ere parte hartu genuen: kooperatiba-eredua sustatzeko era desberdinak eta, enpresa-proiektua abian jarri behar dutenean, sustatzaileek edo aholkulariek Kooperatiba ez eratu edo aholkatzeko arrazoi nagusiak —juridikoak, ekonomikoak eta sozialak— aztertu ziren.
- Arabako Eskualde Egiturako Lan eta Gizarte Gaietako zuzendariarekin bilera ELKAR-LAN, S. COOP. aurkezteko, etorkinen lan-baimenekin zerikusia duten gaiak aztertzeko, Kooperatiba sortu edo bazkide langile edo laneko bazkide gisa sartu nahi izango balute.
- Donostiako Udalaren Ingurumen Baliabideen Zentroarekin bilera, gure erakundea aurkezteko eta Kooperatiba nola eratzen den azaltzeko, 2006. urterako helburua ingurumeneko 3 enpresa sortzea baita, eta forma juridikoetako bat Kooperatiba izan liteke; kasu horretan gure zerbitzu-aukera guztia sustatzaileen eskura jartzeko eskaintza egin genien.

## 2.- HERRI ONURAKO GURE IZAERA EZAGUTARAZTEA

ELKAR-LAN, S. COOP. Kooperatibak Sustatzeko Elkartea Herri Onurako Kooperatiba da eta, eta horretarako ikus: **AGINDUA, 2005eko martxoaren 16koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena. Honen bidez, Sociedad para la Promoción de Cooperativas Elkar-Lan, Koop. Sozietateari herri onurako izaera ematen zaio** (2005eko apirilaren 20ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua)

Ekitaldi honetan beharrezko jarduerak egin dira gure solaskideekiko komunikazio eta ekintza guztietan gure erakundearen ezaugarri hori jakin arazteko, horren bidez egiaztatzen ari baikara gure jarduerak Euskadiko interes orokorra sustatzeko direla, eta horrek harrotu egiten gaitu, gure misioarekin eta kooperatiba-balio eta printzipioekin koherentea delako.

- *Delegación de profesores encargados de poner en marcha un proyecto de las Naciones Unidas, para estimular la creación y crecimiento de Cooperativas en países en vías de desarrollo, mediante aplicación de las TICs.*
- *Participación en una Jornada en Bilbao, organizada por la FUNDACIÓN SABINO ARANA, sobre "El Dialogo y Sociedad: Tendencias de futuro en la Unión Europea."*
- *Participación en unas Jornadas organizadas por ARACOOP, sobre las diferentes formas de promocionar el modelo cooperativo y análisis de las principales causas, en sus vertientes jurídicas, económicas y sociales, por las que los promotores o los asesores no se deciden a constituir o a prescribir, respectivamente, una Cooperativa, para poner en marcha su proyecto empresarial.*
- *Reunión con la Directora del Área Funcional de Trabajo y Asuntos Sociales de Alava para presentarle ELKAR-LAN, S. COOP., así como para tratar diferentes asuntos relacionados con los permisos de trabajo de los inmigrantes en el caso de que deseasen constituir una Cooperativa o incorporarse como socia/o trabajadora o de trabajo*
- *Reunión con el Centro de Recursos Medio-Ambientales de San Sebastián-Donostia, dependiente del Ayuntamiento de San Sebastián-Donostia, para presentarles nuestra entidad y explicarles cómo se constituye una Cooperativa, ya que su objetivo para el año 2006 es la creación de 3 empresas medioambientales, y una de sus formas jurídicas podría ser la Cooperativa, en cuyo caso nos brindamos a ofrecerles toda nuestra gama de servicios a disposición de los promotores.*

## *2.- DIFUSIÓN DE NUESTRA DECLARACIÓN DE UTILIDAD PÚBLICA.*

*LA SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS ELKAR-LAN, S. COOP., es una Cooperativa de Utilidad Pública, a tenor de lo dispuesto en la **ORDEN de 16 de marzo de 2005, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se declara de utilidad pública a la sociedad Cooperativa denominada Sociedad para la Promoción de Cooperativas Elkar-Lan, S. Coop.** (publicada en el Boletín Oficial del País Vasco de 20 de abril de 2005).*

*Durante el presente ejercicio se han realizado las actuaciones necesarias mediante comunicaciones y otras actuaciones, para que nuestros diferentes interlocutores conozcan dicha característica de nuestra entidad, ya que con ella estamos acreditando que sus actividades están contribuyendo a la promoción del interés general de Euskadi, lo cual nos enorgullece, por ser coherente con nuestra misión y con los valores y principios cooperativos.*

## 3.- ZIRKULARRAK BIDALTZEA EAE-KO ENPRESETARA KOOPERATIBA BIHURTZEKO DAUDEN LAGUNTZEN BERRI EMANEZ, ETA BISITAK INTERESA DUTEN ENPRESETARA.

ELKAR-LAN, S. COOP. CONFEBASKen aldizkariaz baliatu da uztaileko zenbakian kontrazalean iragarki bat jartzeko: enpresak Kooperatiba bihurtzeko dauden laguntzen berri eman du, EAEko ahalik eta enpresa gehienetara iristeko helburuarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoan 3 eta 50 lanpostu artean dituzten enpresa guztietara zirkularra bidali da, ETE-Enpresa Txiki eta Ertainak Kooperatiba bihurtzeko dauden laguntzen berri emanez.

Ekintza horien ondorioz, interesa azaldu duten 42 enpresa bisitatu dira eta beraiekin zuzemen eta gestioak egin dira, bilerak edo harremanak beti jabeekin edo akziodun nagusiekin izan direlarik.

## 4.- KORPORAZIO-IRUDIA ETA WEB ORRIA (www.elkarlan.coop)

Kooperatiba Elkarteen ezaugarri eta onurei buruzko Gidaliburu sinplifikatua egin eta argitaratu dugu: oso harrera ona izan du, erabilgarria delako eta argi eta garbi idatzita dagoelako.

Gure korporazio-irudia euskarri fisikoen —diptikoen— eta Webgunea orriaren bidez zabaldu dugu, hau etengabe gaurkotzen ari garelarik. Horren emaitza dira ekitaldian izan ditugun ia 22.000 bisita eta 440.000 hits baino gehiago, eta horrek esan nahi du %37 eta %18 baino hazkunde handiagoak hurrenez hurren, aurreko ekitaldiko parametroen aldean.

## 5.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NOTARIOEKIN HARREMANAK, KOOPERATIBEN ERAKETAN BEREN LANA ERRAZTEKO.

Hain kualifikatua den talde honetan ere gure zabalkunde-lana egin nahirik, bere garaian Zirkular batekin hasi eta harreman zuzenak eta ugariak izan ditugu notarioekin eta beraien ofizialetako batzuekin; horren ondorioz, esan genezake, oro har, Kooperatibak eratzeko izapideak koordinazio eta eraginkortasun handiagoz ari direla egiten notarioen bulegoak, nahiz eta oraindik badagoen zer hobetua, batez ere, Ogasunarekiko izapideak, Euskadiko Kooperatiben Erregistrora iritsi artekoak; zeren eta kasu batzuetan, kausa askorengatik, igarotzen diren epeak benetan gehiegizkoak baitira, baina kausa horiek gainditu egin behar ditugu edota gutxienez laburtu.

## *3.- DIFUSIÓN MASIVA DE CIRCULARES A EMPRESAS DE LA CAPV SOBRE AYUDAS PARA LA TRANSFORMACIÓN EN COOPERATIVAS Y VISITAS A LAS EMPRESAS INTERESADAS.*

*ELKAR-LAN, S. COOP., ha utilizado la publicación de la revista de CONFEBASK, del mes de julio para insertar en su contraportada, un anuncio con las ayudas a la transformación de empresas de otro tipo en Cooperativas, con el objetivo de llegar al máximo posible de empresas de la CAPV.*

*Así mismo, se remitió una circular a todas las empresas de la Comunidad Autónoma Vasca de entre 3 y 50 empleos informándoles sobre las ayudas existentes para la transformación de PYMES en Cooperativas.*

*Como fruto de estas actuaciones se visitaron y se realizaron gestiones con 42 empresas que se interesaron por su contenido, manteniendo siempre las reuniones o relaciones con sus propietarios o con los accionistas mayoritarios.*

## *4.- IMAGEN CORPORATIVA Y PÁGINA WEB (www.elkarlan.coop)*

*Hemos confeccionado y editado una nueva Guía simplificada sobre las características y ventajas de las Sociedades Cooperativas, que ha tenido una muy buena acogida, por su utilidad, la claridad y sencillez con que está redactada.*

*También seguimos difundiendo nuestra imagen corporativa a través de soportes físicos –dípticos- y por nuestra página web, que estamos actualizándola constantemente, y fruto de ello la web ha tenido casi 22.000 visitas y 440.000 hits, durante este ejercicio, lo que ha supuesto crecimientos superiores al 37 % y 18 %, respectivamente, respecto a dichos parámetros en el ejercicio precedente.*

## *5.- RELACIONES CON LAS NOTARIAS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA PARA FACILITARLES SU TAREA EN LA CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS*

*Fieles a nuestros objetivos de difusión para con este colectivo tan cualificado, que en su momento iniciamos con una Circular, hemos seguido manteniendo relaciones fluidas con los Notarios, con los que nos hemos puesto en contacto, así como con algunos de sus Oficiales y, como consecuencia de ello, podemos afirmar que estamos apreciando que, en general, las Notarías están realizando las tramitaciones de las constituciones de Cooperativas de una forma más coordinada y eficiente, sin perjuicio de que todavía tenemos que mejorar, sobre todo los trámites que tienen que ver con Hacienda hasta llegar al Registro de Cooperativas de Euskadi ya que, en algunos casos, los plazos que transcurren son ciertamente excesivos, y ello debido a múltiples causas, que tenemos que superar o, cuanto menos, minorarlas.*

## 6.- KOMUNIKABIDEETAN ELKARRIZKETAK ETA PARTE-HARTZEAK

ELKAR-LAN, S.COOP. albiste izan da bere sustapen-jardueragatik hainbat komunikabidetan eta aldizkari espezializatutan (EUSKAL ENPRESA KOOPERATIBOA, TU LANKIDE eta EUSKADIKO KONTSUMO KOOPERATIBEN FEDERAZIOAREN ALDIZKARIA).

Beste zenbait komunikabidetan —prentsa idatzi nahiz irratietan, EAEn hedapen handiena dutenetan, eta tokian tokiko telebistaren batean— ere parte hartu eta lan egin du, betiere kooperatibak sustatzeko gure bokazioa transmititu eta euskal gizartea kooperatiba-enpresak sortzera bultzatzeko helburuarekin.

## 7.- ZENBAIT EKITALDITAN PARTE-HARTZEA

ELKAR-LAN, S.COOP.eko teknikariek kooperatiba-eredua zabaldu edo ezagutarazi dute, hitzaldien bidez, ondorengo ekitaldiotan:

- Equal-Gertu Europar Programaren aurkezpena, Bidasoa-Activa-k gidatzen duena (Irun -FICOBA-2006ko urtarrilaren 26a).
- Sabino Arana Fundazioak antolaturiko jardunaldi batean parte hartzea: “Elkarrizketa eta Gizartea: Etorkizuneko Joerak Europar Batasunean” (Bilbo, 2006ko otsailaren 20a).
- RETES (Gizarte Ekonomiako Sare Telematikoa) Sistemaren aurkezpena Lakuan (Gasteiz, 2006ko otsailaren 27a)
- CEDEMI-ren 2005eko Jardueren Oroitidazkiaren aurkezpena (Barakaldo, 2006ko otsailaren 16a).
- Gasteizen 2006ko martxoaren 23an izan zen Alava Emprende III. Edizioaren Batzordean parte-hartzea (urtarrilaren 24an eta martxoaren 2an).
- Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioaren Ohiko Batzar Nagusia (Gasteiz, 2006ko apirilaren 5a).
- Nazioz gaindiko lankidetzari buruzko Jardunaldian hitzaldia eman genuen Mik, S. Coop.en, Equal-Ariadna programak antolatua (Arrasate, 2006ko apirilaren 7a).
- Oinarri, S.G.R.ren Ohiko Batzar Nagusia (Miñao, 2006ko maiatzaren 26a).
- Autonomia Erkidegoetan eta Europar Batasunean enpresa-ekimen kooperatiboak ezagutarazi eta sustatzeko dinamikei buruzko jardunaldia, Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzak kofinantzatua (Bilbo, 2006ko ekainaren 15a).
- EAEn familietako ETEen ondorengotzari buruzko jardunaldia, Bilboko Merkataritza Ganberak eta SPRI-k antolatua (Bilbo, 2006ko uztailaren 4a).
- Ekintzailetza-barnekoari buruzko jardunaldia, Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben

## *6.- ENTREVISTAS Y PARTICIPACIONES EN MEDIOS DE COMUNICACIÓN*

*ELKAR-LAN, S.COOP., ha sido noticia por su actividad promotora en diferentes medios de comunicación, y en las revistas especializadas EUSKAL EMPRESA KOOPERATIBOA, TU LANKIDE y la REVISTA DE LA FEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE CONSUMO DE EUSKADI.*

*También ha participado y colaborado en diversos medios de comunicación, tanto escritos como en las radios de mayor implantación en nuestra Comunidad Autónoma y en alguna televisión local, con el objetivo de transmitir nuestra vocación de promoción cooperativa y animar a la sociedad vasca a emprender cooperativamente.*

## *7.- PARTICIPACIÓN EN DIFERENTES EVENTOS*

*Los técnicos de ELKAR-LAN, S.COOP., han difundido el modelo cooperativo a través de la exposición de Conferencias, en los eventos siguientes:*

- *Asistencia a la presentación del Programa Europeo Equal-Gertu, que lidera Bidasoa-Activa (Irún -FICOBA- 26 de enero de 2006).*
- *Participación en la Jornada organizada por la Fundación Sabino Arana sobre el Dialogo y Sociedad: Tendencias de Futuro en la Unión Europea. (Bilbao, 20 de febrero 2006).*
- *Asistencia a la presentación en Lakua del Sistema RETES (Red Telemática de Economía Social) (Vitoria-Gasteiz, 27 de febrero de 2006)*
- *Asistencia a la presentación de la Memoria de Actividades de 2005 de CEDEMI (Baracaldo, 16 de febrero 2006).*
- *Participación en la Comisión de la III Edición de “Alava Emprende” (24 de enero y 2 de marzo), que se celebro en Vitoria-Gasteiz el 23 de marzo 2006.*
- *Asistencia a la Asamblea General Ordinaria de la Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi (Vitoria-Gasteiz 5 de abril de 2006).*
- *Participación con ponencia en la Jornada sobre cooperación transnacional en Mik, S. Coop., organizada por el programa Equal-Ariadna (Arrasate 7 de abril 2006).*
- *Asistencia a la Asamblea General Ordinaria de Oinarri, S.G.R. (Miñano, 26 de mayo 2006).*
- *Jornada sobre dinámicas de difusión y promoción de iniciativas empresariales cooperativas en las Comunidades Autónomas y en la Unión Europea. (Bilbao 15 de junio 2006).*
- *Jornada sobre sucesión de la PYME Familiar en la CAPV, organizada por la Cámara de Comercio de Bilbao y la SPRI (Bilbao, 4 de julio 2006)*
- *Participación en la Jornada sobre el intraemprendizaje organizada por la Federación de*

Federazioak eta Saiolanek antolatua (Gasteiz, 2006ko uztailaren 6a).

- Bilbao Aktiba proiektua aurkeztu eta hausnartzeko jardunaldiak, Bilboko Udalak eta EDE Fundazioak antolatuak (Bilbo, 2006ko irailaren 22a eta azaroaren 3a).
- Radio Taxi Celedon, S. Coop. aurkezteko ekitaldia (Gasteiz, 2006ko azaroaren 15a).
- Kooperatiben sustapena eta ia Autonomia Erkidego guztietan zergatik gero eta Kooperatiba gutxiago sortzen den aztertzeko jardunaldia (Bartzelona, azaroaren 20 eta 21a).
- Astuariasko Kooperatiba Lege berriaren proiektuaren ondorioz, Asturiasko Lan Elkartuko Sozietateen Elkarteak (ASATA) eta ASETRALI, S. Coop.ek antolatutako Jardunaldian txostena aurkeztu genuen (Gijon, azaroaren 24 eta 25a).
- “Umorea enpresan: lehiarako oso abantaila serioa” hitzaldian parte hartu genuen, Lan Ekintza-k eta Bilboko Udalak antolaturik (Bilbo, 2006ko azaroaren 28a).
- Kooperatibismoaren Mundu Egunean parte hartu genuen EAEn, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak antolatuta (Miñao, 2006ko abenduaren 1a).
- Aikox, S. Coop.en lehen urteurrenean izan ginen (Barakaldo, 2006ko abenduaren 12an).
- EMPRENDING 21 ekintzailetza-proiektuan test egile gisa parte hartu genuen, CEPESen eta Valentziako Florida Unibertsitatearen bidez.

  Lan handi horretaz gain, ELKAR-LAN, S. COOP.eko teknikariak Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioak (ELEKF/FCTAE) antolaturiko ikastaroetan ere izan dira.

## 8.- KONTSULTEI ERANTZUTEA

Aurtengo ekitaldian 415 kontsulta egin dizkigute. Zein lurraldetatik egin zaizkigun kontuan hartuta, hona hemen xehekapena:

- 415 KONTSULTA
  - 82 Arabatik
  - 155 Bizkaitik
  - 153 Gipuzkoatik
  - 25 beste lurralde batzuetatik
- Ondorengo gai hauei buruzkoak:
  - Kooperatibei buruzko informazio orokorra
  - Zerga-gaiak
  - Estatutu Sozialak
  - Elkar-Plan (Kooperatibetan Bideragarritasun Plana egiteko aplikazioa)
  - Enpresak Kooperatiba eraldatu edo bihurtzea

*Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi y Saiolan, (Vitoria-Gasteiz, 6 de julio 2006).*

- *Participación en Jornadas de presentación y de reflexión del proyecto “Bilbao Aktiba”, organizadas por el Ayuntamiento de Bilbao y la Fundación EDE (Bilbao, 22 de septiembre y 3 de Noviembre 2006).*
- *Asistencia al acto de presentación de Radio Taxi Celedon, S. Coop (Vitoria-Gasteiz, 15 de noviembre 2006).*
- *Jornada sobre la promoción de Cooperativas (Barcelona 20 y 21 de Noviembre de 2006).*
- *Ponencia en la Jornada organizada como consecuencia del proyecto de la nueva Ley de Cooperativas de Asturias, organizada por la Asociación de Sociedades Asturianas de Trabajo Asociado (ASATA) y por ASETRALI, S. COOP. (Gijón, 24 y 25 de Noviembre de 2006).*
- *Asistencia a la conferencia “El humor en la empresa: una ventaja competitiva bien seria”, organizada por Lan Ekintza y el Ayuntamiento de Bilbao (Bilbao a 28 de noviembre 2006).*
- *Asistencia al Día Mundial de las Cooperativas en la CAPV, organizada por la Confederación de Cooperativas de Euskadi- (Miñano, 1 de diciembre 2006).*
- *Asistencia al primer Aniversario de Aikox, S. Coop. (Barakaldo, 12 de diciembre 2006).*
- *También participamos como testadores del proyecto de emprendizaje EMPRENDING 21, por mediación de CEPES y la Universidad Florida de Valencia.*

  *Además de esta tarea, los Técnicos de ELKAR-LAN, S. COOP., han asistido a Cursos formativos organizados por la Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi (FCTAE).*

## *8.- ATENCIÓN A CONSULTAS*

*Durante el presente ejercicio se han atendido 415 consultas, siendo su desglose, por procedencia territorial el siguiente:*

- *415 CONSULTAS ATENDIDAS*
  - *82 procedentes de Araba.*
  - *155 procedentes de Bizkaia.*
  - *153 procedentes de Gipuzkoa.*
  - *25 de otras procedencias territoriales.*
- *y que se han referido a las materias siguientes:*
  - *Información general sobre Cooperativas.*
  - *Fiscalidad.*
  - *Estatutos Sociales.*
  - *Elkar-Plan (Aplicación para la Elaboración del Plan de Viabilidad en Cooperativas).*
  - *Transformación de Empresas en Cooperativas.*
  - *Seguridad Social en Cooperativas.*
  - *Formación.*

- Gizarte Segurantza Kooperatibetan
- Prestakuntza.

9.- ZIRKULARRAK EGIN ETA BIDALTZEA

38 zirkular egin eta bidali dira, bai masiboki eta bai banaka, bai posta elektronikoz —badutela dakigunean— eta bai ohiko postaz, horiek guztiak www.elkarlan.coop Webgunea gunean jarri direlarik.

Zirkular horiek honako gai hauei buruzkoak izan dira:

- Estatuaren 2006ko Aurrekontu Orokorren berritasunak.
- Gizarte Segurantzari buruzko arauak 2006. urterako.
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien laguntza-programak.
- Eusko Jaurlaritzaren laguntza-programak.
- Hiru Foru Aldundien araudiak zerga-gaietan.
- EAEko jai-egunen egutegia.
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako jai-egunen egutegia
- Euskadiko Kooperatiba Legearen bigarren aldaketarako Legea
- Beste batzuk espezifikoak, hartzaile oso jakinentzat zirenak.

10.-ZABALKUNDE- ETA SUSTAPEN-KANPAINA AHOLKULARITZA-ENPRESA ETA KUDEATZE-AGENTZIETAN

Horretarako, aholkularitza-enpresa eta kudeatze-agentzien bulego profesionaletan banan-banako 133 bilera izan ditugu beraiekin.

Kanpaina honek hurrengo ekitaldian izango du jarraipena eta horren emaitza dira ELKAR-LAN, S.COOP.eko teknikariek aholkularitza-enpresa eta kudeatze-agentziekin izandako harreman ugariak; horrela, kooperatiba-ereduaren irudia talde horretan are gehiago hobetzea espero dugu, horiek baitira enpresak sortzen dituzten ekintzaile gehienengana iristen direnak.

11.-LAN-EKINTZA, SAIOLAN, AZARO FUNDAZIO ETA GAZTENPRESA FUNDAZIOAREKIKO HARREMANAK

Ekitaldi honetan harremanak eta zuzeneko kontaktuak areagotu ditugu SAIOLAN eta AZARO FUNDAZIOArekin, eta erakunde horiei esker banan-banako bilerak egin ditugu sustatzaileekin, eta horietako batzuek Kooperatibak sortu dituzte.

Bestalde, LAN-EKINTZA eta GAZTENPRESA Fundazioarekiko harremanei dagokienez, bakoit-

- *Ayudas y Subvenciones*
- *Aspectos laborales*

*9.- ELABORACIÓN Y REMISIÓN DE CIRCULARES*

*Se confeccionaron 38 circulares, tanto masivas como de carácter individualizado, y tanto por correo electrónico, para aquellos que tenemos constancia del mismo, como por correo ordinario, además de colgar todas ellas en la página web www.elkarlan.coop*

*El contenido de las Circulares se ha referido a las materias siguientes:*

- *Novedades de los Presupuestos Generales del Estado de 2006.*
- *Normas relacionadas con la Seguridad Social para el año 2006.*
- *Programas de Ayudas de las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.*
- *Programas de Ayudas del Gobierno Vasco.*
- *Regulaciones en materia fiscal de las tres Diputaciones Forales.*
- *Calendario de Fiestas Laborales de la CAPV.*
- *Calendario de Fiestas Laborales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.*
- *Ley de segunda modificación de la Ley de Cooperativas de Euskadi.*
- *Otras específicas que afectaban a destinatarios muy concretos.*

*10.-CAMPAÑA DE DIFUSIÓN Y PROMOCIÓN ANTE ASESORÍAS, CONSULTORÍAS Y GESTORÍAS*

*Hemos mantenido, en sus respectivos despachos profesionales de consultorías, asesorías y gestorías, 133 reuniones individuales.*

*Fruto de esta Campaña, que tendrá su continuidad en el próximo ejercicio, son las fluidas relaciones entre los técnicos de ELKAR-LAN, S. COOP., con varias de las consultorías, asesorías y gestorías visitadas, esperando que consigamos mejorar aún más la imagen del modelo cooperativo entre dicho colectivo, ya que ellos son quienes acceden al núcleo mayoritario de emprendedores que constituyen empresas.*

*11.-RELACIONES CON LAN-EKINTZA, SAIOLAN, AZARO FUNDAZIOA Y FUNDACIÓN GAZTEMPRESA*

*Durante este ejercicio hemos intensificado nuestras relaciones y contactos directos con SAIOLAN y AZARO FUNDAZIOA, y gracias a dichas entidades hemos mantenido reuniones individualizadas con promotores, algunos de los cuales han constituido Cooperativas.*

*Así mismo, respecto a nuestras relaciones con LAN-EKINTZA y la Fundación GAZTEMPRESA,*

zarekin izenpetu genuen Hitzarmenean ezarritako bidetik doaz.

## 12.-BIZKAIKO WORKLAN ELKARTEAREKIN LANKIDETZA-HITZARMENA

Otsailaren 1ean ELKAR-LAN, S. COOP.ek BIZKAIKO WORKLAN ELKARTEAREKIN lankidetza-hitzarmena izenpetu zuen, horrek ahalbidetzen duelarik:

1ª.- WORKLAN BIZKAIA ELKARTEKO sustatzaileei kooperatiba-eredua ezagutaraztea.

2ª.- Kooperatibetako pertsona ekintzaileen prestakuntza eta motibazioa.

3ª.- WORKLAN BIZKAIA ELKARTEAREN sustatzaileekin Kooperatibak eratzea.

## 13.- EUROPAKO EQUAL PROGRAMA BATEAN PARTE HARTZEA

